2 Ona hemen landareen nutrizioan parte hartzen duten elementuak eta betetzen dituzten funtzioak.

a) Osa ezazu infograma elementu bakoitzaren izenak txertatuz.


ELEMENTUAK

ura eta gatz mineralak | azukrea | sustraiak | klorofila | oxigenoa (O_2) | eguzki-izpiak | zurtoina | hostoak | karbono dioxidoa (CO_2)

LANDAREEN NUTRIZIOA

Landareek, bizidun guztiek bezala, elikatu eta arnastu egin behar dute bizitzeko.

ANIMALIAK	LANDAREAK
Elikatzeko, mantenugaiak eskuratu behar dituzte.	
Animalien okotik sartzen dituzu mantenugaiak.	Landareek sustrailen bidez xurgatzen dituzte gatz mineralak eta ura.
Mantenugaiak, elikagai bihurtuta, gerputz guztira zabaltzen dituzte.	
Zainen eta odolaren bidez garraiatzen dituzu elikagaiak.	Zurtoinak dituzte kanal xurgatutakoa hostoetara garraiatzeko.



Hostoak elikagaia sortzen duten lantegitxo modukoak dira.

NOLA SORTZEN DUTE ELIKAGAIA?

Eguzki-izpiek klorofilari eragindakoan gertatzen da. Zurtoinak garraiatutako gatzak eta ura, arnastean botatzen dugun karbono dioxidoarekin (CO_2) nahastu eta azukre bihurtzen dira. Elikagai hori zurtoinak garraiatzen du landare guztira. Prozesu horri fotosintesia deitzen zaio, eta hondakin moduan oxigenoa (O_2) kanporatzen da.

ZER ARNASTEN DUTE?

Bizidun guztiak bezala landareek ere oxigenoa (O_2) arnasten dute eta karbono dioxidoa (CO_2) kanporatzen dute. Gauez argirik ez dagoenean fotosintesia ezin denez egin, arnasketa bakarrik egiten da. Egunez, fotosintesia dela eta, kanporatzen den oxigeno kopurua askoz handiagoa da arnasketarako erabiltzen dena baino.

Hortik dator gauez landareek oxigenoa lapurtzen digutenaren ustea.